

LAKUNTZAKO UDALEKO EUSKARAREN ORDENANTZA

Sarrera

Euskara Sakanako biztanleen berezko hizkuntza izan da antzinatik, nahiz gaur egun hizkuntza hori kinka zailean egon.

Euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere izatea lortu nahi du Lakuntzako Udalak.

Ordenantza honen bitartez Lakuntzako Udalak tresna egokia sortu du euskararen erabilera sustatu eta arautzeko.

Ordenantza honek izaera juridikoa du.

I._Aplikazio eremua

1. artikulua. Ordenantza hau Lakuntzako Udalean eta haren menpeko entitate eta zerbitzuetan aplikatuko da.

II._Hizkuntzen erabilera orokorra

2. artikulua. Lakuntzako Udalak, oro har, bere harremanetan euskara edo gaztelania erabiliko du, hurrengo artikuluetan zehazten den moduan.

III._Barneko erabilera

3. artikulua. Barneko administrazio egintzak euskaraz edo hizkuntza bietan egingen dira. Ahal den neurrian euskara lehenetsiko da eta ahal den guztietan euskara erabiliko da.

4. artikulua. Udaleko organoek erabiltzen dituzten barne inprimakiak euskaraz ere egingen dira.

5. artikulua. 1. Bulego, gela eta Udaleko beste tokietako errotulu eta bereizgarriak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira.

5.2. Inprimakietako menbreteak, gomazko zigiluak, tinbre-zigiluak eta antzeko beste elementuak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira.

6. artikulua. Programa informatikoak eta Lakuntzako Udalaren bulegoetan erabiltzeko eskuratzen diren materialak, ahal den neurrian, euskaraz edo hizkuntza bietan egonen dira.

7. artikulua. Udalak hirugarrenei kontratatzen dizkien ikerlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz edo hizkuntza bietan aurkeztuko dira.

IV._Erakundeekiko harremanak

8. artikulua. Euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoei Udalak euskaraz edo hizkuntza bietan bidaliko dizkie agiriak.

9. artikulua. Euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoei Lakuntzako Udalak eskatuko die agiriak euskaraz edo hizkuntza bietan bidal diezazkiotela.

V._Administratuekiko harremanak

10. artikulua. Sakanako udalei hizkuntza bietan bidaliko zaizkie mezuak edo jakinarazpenak, bai eta euskara hizkuntza ofiziala duten edo euskarak bizirik dirauen eskualdeetako pertsona fisiko eta juridikoei ere. Norbaitek Lakuntzako Udalarekiko harremanetan euskara erabili nahi duenean eskubide hori bermatuko zaio.

11. artikulua. Lakuntzako Udalak euskaraz nahiz gaztelaniaz onartuko ditu pertsona fisikoen komunikazioak.

12. artikulua. Herritarrei ematen zaizkien inprimakiak euskaraz edo hizkuntza bietan egonen dira.

13. artikulua. Lakuntzako Udaleko langileak normalean euskaraz zuzenduko zaizkie erabiltzaileei. Hala ere, elkarrizketa hasiz gero, erabiltzaileek aukeratutako hizkuntzan mintzatuko dira.

VI._Oharrak, argitalpenak eta jendaurreko egintzak

14. artikulua. Lakuntzako Udalaren eta haren menpeko erakunde edo zerbitzuen xedapenak, aldizkariak, kartelak, oharrak eta antzekoak euskaraz eta gaztelaniaz egingen dira.

15. artikulua. Lakuntzako Udalaren eta haren menpeko erakunde edo zerbitzuen iragarkiak eta publizitatea betiere euskaraz eta gaztelaniaz egingen dira.

16. artikulua. Lakuntzako Udaleko kargudunek ahal den neurrian euskara erabiliko dute jendaurreko jardunean.

VII._Erregistroak

17. artikulua. Lakuntzako Udalaren Erregistroan, agiriak zein hizkuntzatan aurkezten diren, halaxe egingen dira inskripzioak. Erregistroak luzatzen dituen ziurtagiriak hizkuntza bietan edo euskara hutsean egingen dira.

VIII._Langileen birziklapena

18. artikulua. Lakuntzako Udalaren xedea da bere zerbitzuak eta sailak euskaraz edo hizkuntza bietan jarduteko gai izan daitezen.

19. artikulua. Xede hori lortu ahal izateko, Lakuntzako Udalak lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizunak zehaztuko ditu. Hala bada, Udaleko Euskara Batzordeak hizkuntza eskakizunak proposatuko ditu, Osoko Bilkurak onets ditzan. Ordenantza hau legez onartutakoan hartuko dute indarra hizkuntza eskakizunek eta zazpi urte iraungo dute indarrean. Hizkuntza eskakizunak onartutakoan, ordenantza honi erantsiko zaizkio.

20. artikulua. Lakuntzako Udalak bere langileei baimena emanen die euskara ikastaroetara joateko, euskara maila egokia lor dezaten.

21. artikulua. Dagozkien hizkuntza eskakizunak betetzen dituzten langileak euskaraz ere ariko dira lanean. Gainerako langileak euskalduntze planaren barnean euskaldundu ahala euskaraz lan egiten hasiko dira, eta dagozkien hizkuntza eskakizuna betetzen dutenean euskara hutsean egingen dute lana.

22. artikulua. Lekualdaketa, igoera edo transferentziaren bidez zein bestelako bideetatik Lakuntzako Udalean lanpostua lortu ahal izateko, ezinbestez bete beharko da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Horretarako, Udaleko plantilla organikoan lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna sartu beharko da. Halaber, urte bakoitzeko lanpostuen zerrenda jaso dadin, urteko lan eskaintza aurkeztuko da epearen barnean, Osoko Bilkurak onets dezan.

IX._Langile berriak kontratatzea

23. artikulua. Aurrerantzean Lakuntzako Udalak kontratatzen dituen langileek gai izan behar dute euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiteko. Hortaz, lan egin ahal izateko, Udaleko eta haren menpeko erakundeetako lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak bete beharko dituzte.

24. artikulua. Lanposturen bat bete behar denean, inork ez badu betetzen dagokion hizkuntza eskakizuna, lanpostua hutsik geldituko da eta beste deialdi bat egingen da.

X._Euskararen erabilera Sakanako udalerrietan

25. artikulua. Lakuntzako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu euskara gizartean erabil dadin eta, orokorrean, euskararen erabilera areagotu dadin. Beraz, Lakuntzako Udalak ahalegin berezia egingen du jendeak euskaraz jakin eta hitz egin dezan ziurtatzen eta sustatzen, gizarteko esparru guztietan euskararen erabilera hedatzeko helburuarekin.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena._Lakuntzako Udaleko Euskara Batzordeak ahalmena izanen du ordenantza hau bete dadin zer-nolako jarraipena egin behar den zehazteko. Edozeri buruzko proposamenak egin ahalko ditu, halaber, ordenantza hau beteko dela bermatzeko.

Bigarrena._Lakuntzako Udalak onetsitako gainerako ordenantza eta xedapenetan jaso beharko da honako ordenantza honetan ezarritakoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe gelditu dira maila bereko edo beheragoko ordenantzak, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat egiten ez badute edo kontra egiten badute.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra._Behin betiko onespena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hogeita hamar egun iragandakoan hartuko du indarra ordenantza honek.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

LANPOSTUA MAILA EUSKARA MAILA

Idazkaria A Ahoz eta idatziz

Kontu-hartzailea B Ahoz eta idatziz

Arkitektoa B Ahoz eta idatziz

Administrari laguntzailea D Ahoz eta idatziz

Euskara maila: lanpostuaren ezaugarrien eta egitekoen arabera langileak zenbateraino jakin behar duen euskaraz hitz egiten eta idazten.

ORDENANZA DEL EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE LAKUNTZA

Introducción

Históricamente, el Euskera, ha sido la lengua propia de los habitantes de Sakana, aunque actualmente esta lengua se encuentre en dificultades.

El objetivo del Ayuntamiento de Lakuntza es que el Euskera además de que sea una lengua de servicio, se convierta en lengua de trabajo.

Por medio de esta ordenanza, el Ayuntamiento de Lakuntza adopta una adecuada herramienta para promocionar y normalizar el uso del Euskera.

Esta ordenanza adopta forma jurídica.

I._Ambito de aplicación

Artículo 1.º Esta ordenanza se aplicará en el Ayuntamiento de Lakuntza, y en las entidades y servicios dependientes del mismo.

II._Uso general de las lenguas

Artículo 2.º El Ayuntamiento de Lakuntza, en general, en sus relaciones, utilizará el Euskera o el castellano, en la forma en que se especifica en los siguientes artículos.

III._Utilización interna

Artículo 3.º Las actos administrativos de carácter interno se realizarán en Euskera o en bilingüe, dando prioridad en todo lo posible al Euskera y siempre que sea posible en Euskera.

Artículo 4.º Los impresos internos utilizados por los distintos órganos del Ayuntamiento se realizarán también en Euskera.

Artículo 5.º 1. Los rótulos o distintivos de las oficinas, habitaciones o lugares propios del Ayuntamiento estarán en Euskera y castellano.

5.2. Los membretes de impresos, sellos de goma, timbres sellados y elementos semejantes estarán en Euskera y castellano.

Artículo 6.º Los programas informáticos y los materiales obtenidos para su utilización en las dependencias del Ayuntamiento de Lakuntza, estarán en la medida de lo posible en Euskera o en bilingüe.

Artículo 7.º Las investigaciones, proyectos o trabajos similares contratados con terceros por el Ayuntamiento se presentarán en Euskera o en bilingüe.

IV._Relaciones institucionales

Artículo 8.º La documentación enviada por el Ayuntamiento a las Administraciones o Instituciones Públicas, en las cuales el Euskera sea oficial, será en Euskera o en bilingüe.

Artículo 9.º El Ayuntamiento de Lakuntza solicitará a las Administraciones o Instituciones Públicas, en las cuales el Euskera sea oficial, que la documentación que envíen sea al menos en Euskera.

V._Relaciones con los Administrados

Artículo 10. Las comunicaciones o notificaciones que se envíen a los municipios de Sakana, o a las personas físicas o jurídicas que vivan en comarcas donde el Euskera sea oficial o donde el Euskera se mantiene vivo, se harán en bilingüe. Si algún particular quiere mantener sus relaciones con el Ayuntamiento de Lakuntza en Euskera, la misma garantizará este derecho.

Artículo 11. El Ayuntamiento de Lakuntza admitirá las comunicaciones realizadas por las personas físicas en Euskera o en castellano.

Artículo 12. Los impresos ofrecidos a los vecinos serán, en Euskera o en bilingüe.

Artículo 13. Los empleados del Ayuntamiento de Lakuntza, se dirigirán a sus usuarios normalmente en Euskera. Sin embargo, a la hora de continuar la conversación, se respetará la elección lingüística realizada por los usuarios.

VI._Notas, Publicaciones y Actos Públicos

Artículo 14. En las disposiciones, revistas, carteles, notas, etcétera, realizadas por el Ayuntamiento de Lakuntza o por sus organismos o servicios dependientes, se utilizará el Euskera y el castellano.

Artículo 15. En todos los anuncios o publicidad realizada por el Ayuntamiento de Lakuntza, o por sus organismos o servicios dependientes, se utilizará el Euskera y el castellano.

Artículo 16. La actividad pública de los cargos del Ayuntamiento de Lakuntza será en Euskera en la medida de lo posible.

VII._Registros

Artículo 17. Las inscripciones realizadas en el Registro del Ayuntamiento de Lakuntza, se harán en la lengua del documento presentado y las certificaciones expedidas por el registro se harán en bilingüe, o en Euskera solamente.

VIII._Reciclaje del Personal

Artículo 18. El objetivo del Ayuntamiento de Lakuntza es que sus servicios o departamentos puedan trabajar en Euskera o en bilingüe.

Artículo 19. Para poder obtener lo anteriormente mencionado, el Ayuntamiento de Lakuntza especificará los perfiles lingüísticos de cada puesto de trabajo. Así pues, la Comisión de Euskera del Ayuntamiento propondrá los perfiles lingüísticos para que el Pleno los apruebe. Los perfiles lingüísticos entrarán en vigor una vez que la Ordenanza sea legalmente aprobada hasta un plazo de siete años. Una vez se aprueben los perfiles lingüísticos, se adherirán a esta ordenanza.

Artículo 20. El Ayuntamiento de Lakuntza dará permiso a sus empleados para que puedan acudir a cursos de Euskera, con el objetivo de obtener el nivel de Euskera adecuado.

Artículo 21. Los empleado/as que cumplen con su perfil lingüístico correspondiente, realizarán su trabajo también en Euskera. Los demás empleados/as, dentro del plan de euskaldunización, en la medida en que se euskaldunicen, empezarán a desempeñar su trabajo en Euskera, y cuando obtengan el perfil lingüístico correspondiente, trabajarán totalmente en Euskera.

Artículo 22. Para poder obtener un puesto de trabajo en el Ayuntamiento de Lakuntza mediante traslado, ascenso, transferencia o por otro medio, será condición indispensable que se cumpla con el correspondiente perfil lingüístico. Para ello, dentro de la plantilla orgánica del Ayuntamiento se deberá incluir el perfil lingüístico de cada puesto de trabajo. Así mismo, para que se recoja la relación de puestos de trabajo anuales, se presentará dentro de plazo la oferta de empleo de cada año para que la apruebe el Pleno.

IX._Contratación de nuevos empleados

Artículo 23. Los empleado/as que en el futuro contrate el Ayuntamiento de Lakuntza deberán ser capaces de desarrollar su trabajo tanto en Euskera como en castellano. Así

pues, para poder desarrollar el trabajo, deberán cumplimentar los perfiles lingüísticos definidos de los puestos de trabajo del Ayuntamiento y de organismos dependientes del mismo.

Artículo 24. En caso de que no hubiese ninguna persona que tuviese el perfil lingüístico correspondiente, la plaza quedará vacante y se realizará una nueva convocatoria.

X. Utilización del Euskera en los Municipios de Sakana

Artículo 25. El Ayuntamiento de Lakuntza adoptará las medidas oportunas para que el Euskera sea utilizado a nivel social, y para que aumente la presencia del Euskera a nivel general. Por tanto, el Ayuntamiento de Lakuntza hará un especial esfuerzo asegurando y promocionando el conocimiento y utilización del Euskera, con el objetivo de generalizar el uso en todos los ámbitos de la sociedad.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera._La Comisión de Euskera del Ayuntamiento de Lakuntza, tendrá competencia para definir el tipo de seguimiento para que se cumpla esta ordenanza, y para garantizar dicho cumplimiento podrá realizar propuestas sobre cualquier tema.

Segunda._Las demás ordenanzas y disposiciones aprobadas por el Ayuntamiento de Lakuntza tendrán que recoger lo reseñado en esta ordenanza.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas las ordenanzas del mismo nivel o inferior que no estén de acuerdo o las que estén en contra con lo dispuesto en esta ordenanza.

DISPOSICION FINAL

Unica._Esta ordenanza entrará en vigor después de que transcurran treinta días tras la publicación de su aprobación final en el BOLETIN OFICIAL de Navarra.

PERFILES LINGÜISTICOS

PUESTO DE TRABAJO NIVEL NIVEL EUSKERA

Secretario-a A Oral y escrito

Interventor B Oral y escrito

Arquitecto-a B Oral y escrito

Auxiliar administrativo D Oral y escrito

Nivel de Euskera: Nivel de euskera hablado y escrito correspondiente a las funciones y características del puesto de trabajo.